



## **EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA AREAGOTZEKO OINARRIAK JASOTZEN DITUEN HITZARMENARI BURUZKO TXOSTENA**

---

**20/2018 LGAKZ – LT**

### **I.- AURREKARIAK**

Hezkuntza Sailaren Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzak goian aipatutako hitzarmenari buruzko txostena eskatu du. Hitzarmen-proiektuarekin batera espedientean honako agiri hauek daude: Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren memoria eta Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzaren txostena.

Oraingo gure legezketasun-txosten honen oinarri da Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen azaroaren 26ko Lehendakariaren 24/2016 Dekretuaren 6.1.h) artikulua, bai eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 14.1 a) artikulua ere.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa antolatzen duen ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1 b) artikulua arabera, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokio egin beharreko txosten juridikoa egitea Eusko Jaurlaritzak sinatzen dituen akordio edo hitzarmen-proiektuen inguruan, erregelamenduz zehaztutako kasuetan. Honen harira, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 13.1 b) artikulua ezartzen du Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiak nahitaezko legezketasun-txostena egin behar duela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek edo erakunde instituzionalek beste administrazio publiko batzuekin eta horiei lotuta edo horien mende dauden zuzenbide publikoko erakundeekin izenpetu behar dituzte hitzarmen-proiektuen

inguruan. Izan ere, Euskaltzaindia erakundearen izaera juridiko-publikoa da, bere estatutuekin bat etorrira.

## II.- HITZARMENAREN AZTERKETA

### A). Eskumenak

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 16. artikulua araberak irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskal Autonomia Erkidegoaren kompetentziapen dago, Konstituzioaren 27. artikulua eta berori zehaztuko duten Lege Organikoei, haren 149-1-30. artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta guztiori betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspektioari kalterik egiteke. Ildo horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen azaroaren 26ko Lehendakariaren 24/2016 Dekretuaren 11. artikulua jarraiki Hezkuntza Sailari dagozkio irakaskuntzaren alorrean Autonomia Estatutuan ezartzen diren ahalmenak, araubide orokorrekoak zein araubide berezikoak, etapa eta maila desberdinak barnean direla, bai eta goi-mailako hezkuntza ere. Honetaz gain, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 79/2017 Dekretuaren 14.1 b) artikulua araberak Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari dagokio Unibertsitatez kanpoko curriculumak garatzeko material didaktikoa prestatzea bultzatzea. Horiek horrela, Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak, Unibertsitate aurreko euskarazko ikasmaterialgintza babesteko, indartzeko, garatzeko eta diruz laguntzeko eratu zuen EIMA programa.

Bestalde, Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 6. artikulua euskarari Euskal Herriko hizkuntza ofizialaren izaera aitortzen dio, eta ezartzen du Euskaltzaindia dela erakunde aholku emaile ofiziala, euskarari dagozkionetan. Erakunde honi, bere estatutuen 1. artikulua araberak, dagokio, besteak beste, euskararen legeak ikertu eta mamitzea; euskara idatzirako argibideak eta arauak ematea; hiztegia, gramatika eta grafia literatura-hizkera baturako lan egitea; euskararen erabilera sustatzea; hizkuntza, gizarte-maila guztietan gai bihurtzeko lan egitea; eta filologia eta hizkuntzalaritza-ikerketak sustatzea, euskara eta euskal literaturaren katedrak bultzatuz.

## **B) Hitzarmenaren oinarri juridikoa**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen VI kapituluak hitzarmenak arautzen ditu. Honen harira 47 artikulua ezartzen du hitzarmenak direla ondorio juridikodun akordio batzuk administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera. Bestalde, 49 artikulua zehazten ditu hitzarmenek barnean, gutxienez, hartu behar dituzten gaiak.

## **D) Hitzarmenaren edukia**

Hitzarmenaren xedea da bi erakundeen arteko elkarlana arautzea, euskararen eta euskal kulturaren sorkuntzarako, sustapenerako, garapenerako eta zabalkunderako.

Hitzarmenaren lehenengo zatian adierazten da zeintzuk diren sinatzen duten subjektuak eta alderdietako bakoitzak zer gaitasun juridikoarekin jarduten duen eta zer eskumenetan oinarritzen den jarduketa.

Hori behin eginda, alderdi biek hitzartzen duten hainbat aspektu zehazten dira, bestek beste:

-Bi erakundeen arteko elkarlana euskararen eta euskal kulturaren sorkuntzarako, sustapenerako, garapenerako eta zabalkunderako proposatzen diren egitasmoak.

-Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak:

- Erakunde biek konpromisoa Euskaltzaindiak euskararen arloan ezarritako arauak eta proposaturiko gomendioak zabaltzeko.
- EIMAREN konpromisoa bere jardunetan Euskaltzaindiaren gramatika, lexiko, ortografia, onomastika eta euskalkien erabilerari buruzko irizpideak aintzat hartzeko.
- Euskaltzaindiaren konpromisoa EIMAK egindako kontsultei eta iradokiei erantzuna emateko, edo eta bideratzeko. Halaber, alderdi biek konpromisoa kontsulta horiek egiteko mekanismoak finkatzeko.

- Erakunde bien konpromisoa publikatzen dituzten argitalpenak elkarren artean trukatzeko.
  - Alderdi bien konpromisoa euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean egitasmoak partekatzeko.
  - Erakunde bien egoitza nahiz azpiegitura erabiltzeko aukera elkarri eskaintzeko asmoa.
- Jarraipen Batzordearen kideak eta funtzionamendua.
- Hitzarmenaren iraupena eta luzapenerako aukera.

Bestalde, aipatzekoa da, Hezkuntza Berrizatzeko zuzendariaren memorian azaltzen den bezala, hitzarmen honek ez duela eduki ekonomikorik.

### III. ONDORIOA

Hitzarmenaren xedea alderdi sinatzaile bien eskumen-esparru barruan dago eta, honenbestez, hitzarmen proiektuak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritako baldintzak betetzen ditu. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren hitzarmena indarrean dagoen legeriarekin bat dator.

Hau da nik neuk emandako txostena, eta zuzenbidean oinarritutako edozein txosten hoberen menpe jartzen dut.